Bruselan euskal 'lobby'-a sortzea proposatu du Lopezek

Europara egindako lehen bidaia ofizialean, Eskualdeen Batzordearen osoko bilkuran parte hartu du

Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakariak Eskualdeen Batzordean hitz egin zuen atzo. JON BERNARDEZ

Erredakzioa

Bruselan euskal presio taldea edo *lobby*-a sortzea proposatu du Patxi Lopez lehendakariak, «Europan Euskadiren eragina handitzeko». Izan ere, lehendakariak uste du Europako Batasunean Euskadiren aukerak indartu daitezkeela, eta bere eragina handitzeko lan egin behar dela. «Euskadik bere *lobby*-a behar du, zentzu onenean». Bruselara lehen bidaia ofiziala egin zuen atzo Lopezek, eta Jaurlaritzak han duen delegazioan esan zituen hitzok, euskal kolektibitatearen aurrean.

Aurretik, lehendakariak Europako Batasuneko Eskualdeen Batzordeko osoko bilkuran parte hartu zuen, *Munduko krisia, eskualdeen erantzunak* lelopean antolatutako eztabaidan. Krisialdi ekonomikotik atera ahal izateko, herri eta eskualdeen boterea handitzea ezinbestekoa dela azpimarratu zuen lehendakariak osoko bilkuran. Luc van den Brande Eskualdeetako Batzordeko presidentearekin eta Pawel Samecki Eskualdeko Politikako Komisarioarekin batera aritu zen lehendakaria hizlari modura.

Euskal Autonomia Erkidegoak krisialdi ekonomikotik irteteko dituen erronkak hizpide izan zituen Lopezek osoko bilkuran. Hala, bestelako eredu ekonomikoa martxan jartzea ez ezik, «herrialde eredu berria» eraikitzeko oinarriak ipintzea ezinbestekoa dela esan zuen. Eredu berri hori eraiki ahal izateko, Europako eskualdeetako esperientziei erreparatzea ezinbestekotzat jo zuen.

Lehendakariak ekonomia, energia, zerga eta ikerketa eredu berriak aldarrikatu zituen Europan herrialde «iraunkorrak eta solidarioak» lortu ahal izateko. Eta, eskualdeek arlo horietako askotan eskuduntzarik izan ez arren, eredu horien inguruko eztabaidan parte hartzeko aukera izan beharko luketela azpimarratu zuen.

Autogobernua

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua adibide gisa jarrita, azpimarratu zuen ekonomia globalizatuen eskariei aurre egiteko eta nazioarteko finantza krisialditik irteteko Europako beste eskualdeak baino «egoera hobean» dagoela. EAE eskumen gehien dituen Europako eskualdea delako gertatzen da hori, haren irudiko. «Gure autogobernua mundu osoko handiena da, ziurrenik. Eusko Jaurlaritzaren esku dago herritarren eguneroko bizitzari eragiten dizkioten erabaki politikoen %90». Eta, besteak beste, Kontzertu Ekonomikoaren garrantzia aipatu zuen, zerga eta ogasun arloan EAEri baliabide eta tresna propioak ematen dizkiolako erabakiak hartzeko.

Krisiari aurre egiteko neurriei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak krisiari aurre egiteko onartu berri duen neurri sortarekin azpiegitura eta lan publikoetako inbertsioak «indartu» nahi dituela azaldu zien lehendakariek Europako eskualdeetako ordezkariei. Neurriokin batera, Eusko Jaurlaritzak gizarte zerbitzuk bermatzen jarraituko duela azaldu zuen.

Bruselara egindako lehen bidaia ofizialean, agenda beteta izan zuen atzo Patxi Lopez lehendakariak. Goizean, Jose Manuel Durao Barroso Europako Batzordeko presidentearekin bildu zen, eta, arratsaldean, Eskualdeen Batzordean parte hartu baino lehen, Joaquin Almunia Ekonomia Gaietarako Europako komisarioarekin elkartu zen.